

# Jesusen Lagundi «berria»

*En la historia de la Compañía de Jesús se suele hablar de la Antigua y Nueva Compañía. Siendo siempre la misma Orden religiosa, la línea divisoria de ambas viene marcada por el paréntesis de la supresión estatal y papal (1773-1814), dispuesta ésta última por Clemente XIV (1773). La Nueva Compañía fue restablecida por Pío VII, en el contexto general de la Restauración (1814).*

Jesusen Lagundi "Zaharra" XVI-XVIII. mende-  
etakoari deitu ohi zaio, eta Lagundi "Berria"  
XIX-XX. mendeetakoari. *Zaharra* eta *Berria* ez  
dira, noski, bi Erakunde ezberdin, bat beraren  
bi aldi baizik.

## **Historia eder eta malkartsua**

1540an jaiotako Lagundia Eliza katolikoko Ins-  
titutu Erlijioso berritzaileena gertatu zen Aro  
Modernoan (Kontrarreformako Teologia, Ira-  
kaskuntza, Misiio-inkulturazioa, etab.). Hazi ere  
bizkor hazi zen: San Ignazioren heriotza-urte-  
an 1.000ren bat ziren (1556), eta hirurogei urte  
geroago 13.000 eta gehiago (1616).

Lagundiaren pisu sozio-kulturala handia  
izango da laster, baina ez etsaigorik piztu gabe.  
XVII. ean jaiotako jansenismoa (Jansenius, Pas-  
cal, Saint-Cyran baionesa) eta XVIII. eko "argiz-  
tatuak", bakoitza bere gisara, oso kritiko ager-  
tu ziren Lagundiarekin.

Eztabaida teologiko eta politikoek ez zuten  
sosegu onik utzi, eta azkenik, Europako Monar-  
kiek, borbondarrek bereziki, Lagundia desegi-  
tea erabaki zuten. Erreinu ezberdinetan har-  
tutako erabakien ondoren, Klemente XIV.ak  
eman zuten azken kolpea: desegin egin zuten  
Lagundia (une hartan 23.000 lagun zituen),

nahiz eta honek Errusian eta Prusian jarraitze-  
rik izan zuten.

Horrek guztiak ondorio larriak ekarri zituen,  
eliz bizitzan ez ezik jesulagunen ekimen kultu-  
raletan ere. Gurean, adibidez, Larramendi-ren  
idazle-eskola lagunditarra erbestean galdu  
genuen (1767): Kardaberaz (†1770) eta Mendi-  
buru (†1782) Italian hil ziren, eta larramendita-  
rren lekukoa ahal izan zen moduan beste eliz-  
gizonek hartu behar izan zuten, ez jesulagunek.

## **Lagundia berrekaikitzen (1814...)**

Pio VII.aren 1814ko erabakiaren aurretik ere, egon  
zen Lagundia izanberritzeko ekimen eta lagu-  
narrikerik, eta Frantziar Iraultzarik gordinena pasa-  
tuta gero, Aita Santuek erdi-isilpeko erabakiak  
ere hartu zituzten Lagundiaren alde.

1900. ean jada bazeuden munduan 15.000  
jesulagun, eta 1974an –Arrupe Nagusi Jeneral  
bilbotarraren urteetan– kasik 30.000 ziren: beraz,  
Lagundia inoiz baino handiago izatera iritsi zen  
XX. mendeko Kontzilio-ondoan.

Jesulagunen garapen historiko horrekin  
batera esan beharra dago San Ignazioren izpi-  
rituak emakumezkoen hainbat Kongregaziotan  
izan duela lekuri, eta laikoaren artean "Congre-  
gaciones Marianas" deituak gizartean ongi txer-



tatuak ageri zaizkigula XX. mendean. Bestalde, Gogo-Jardunen lana bereziki zaindu dute jesulagunek (ia 2.700 jardunaldi 1974an, 144 Etxetan). Eta Unibertsitate eta Ikastetxeetako lanak ezin dira ahaztu, noski.

### Euskal Herrian ere

San Ignazioaren sorterri honetan, jesulagunek presentzia eraginkorra izan dute XIX-XX. mendeetan, nahiz eta aipatu izan dudana esklastrazioak ere harrapatu zituen. Hala ere, dagokeneko 1852an Loiolara itzuli ahal izan ziren, eta 1876an Cánovas del Castillo-k (Arantzazura Aita Epelde frantziskotarrarekin igo zen berak) kolpetxarren bat eman baldin bazien ere. Egia esan, Lagundia beste birritan desegin zuten Espainiako Gobernuek, 1868an eta 1932an.

Gorabehera horiek guztiak tarteko izan arren, Euskal Herrian presentzia indartsua izan du Lagundi Berriak. Etxe eta ekimen batzuk gogorarazi besterik ez dago: Loiola (1852, 1877), Tuter (1877, 1891) eta Xabier (1893) noski, baina era berean Bilbo (1869, 1876), Urduña (1870), Durango (1841, 1880), Donostia, Iruñe eta abarretako ikastetxeak, Deustuko Unibertsitatearen *campus*-ak ahantzi gabe (Bilbo, 1886, 1962; Donostia, 1956), eta Egoitza apalagoak gogoran ditugula (Tuter, 1871; Bilbo, 1880; Durango, 1879; Donostia, 1898).

Etxe horietatik batzuek ekimen-multzo ezberdina bildu izan dute: Egoitzaren ondoan ikastetxea, honekin batera Gogartetxea, Erlijosio-Elkartearekin batera herritarren Elkartek, tokiko eliz lanaren aldi berean kanpoko predikatuak

eta herrietako misio-aldiak, etab. Esan behar da, bestalde, Espainiako Jesusen Bihotzaren jaiera eta Otoitz-Apostolutza Bilbotik gidatu izan dela (1883), *Mensajero* aldizkaria tartean delarik (hortik jaio zen *Jesus'en Biotzaren Deia*).

Jesulagun euskaldunak 1948az gerotzik Mendebalde eta Ekialdeko Gaztela zeritzen bi Probintzietan banaturik aurkitu ziren (Araba eta Bizkaia, alde batetik; Gipuzkoa eta Nafarroa, bestetik); baina, gutxiena espero zitekeenean, Hegoalde osoa lehenengo aldiz Probintzia beregain bakarrean bilduta aurkitu zen: Loiolako Probintzia (1962).

Euskal kultur mundura gatzela, hona ekartzekoak da, gainera, euskalgintzan Lagundi Berriak egindako ekarpena: hasteko, aipa dezadan Aita J.I. Arana (†1896), idazle eta bibliografo honi zor baitiogu “Arantzazuko” ereserkia. XX. mendeko euskalgintzan, jesulagunetan Aita Estefania-k sortutako “eskola” da ekarpenik handiena; hau da, inoiz jesulagun izanda edo horrela jarraiturik, lan handia burutuko zutenak literatur ildoan jarri zituena: Olabide-ren Biblia itzulpena, Orixe-ren idazlanak, Lauaxeta olerkaria, Zaitegi eta lagunak *Euzko-Gogoa* neurri handi batean, Plazido Muxika-ren hiztegia; horien ondorengoak ditugu A. Zavala-ren *Auspoa*, P. Altunaren iker-irakaskuntza, G. Garate-ren nobelagintza edo Deustuko euskal irakaskuntza.

2002an, Euskal Herriko Probintziako jesuitak 354 lagun ziren, Hegoaldean eta erbesteko lanetan zihardutenak.

**Joseba Intxausti**

*Galderak eta oharrak: 610273580*